

TABAKALERA



IMMATERIAL 2024

SORKUNTZA PROIEKTU DIGITALAK GARATZEKO DEIALDIA

DEIALDIA
CONVOCATORIA
OPEN CALL

Immaterial

2024

ACTS

TABAKALERA



PRO

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus



1. AURKEZPENA

IMMATERIAL Medialab Tabakalerako eta Ikus-entzunezko laborategiak elkarlanean eskainitako arte-pieza digitalak sortu eta formatu berriak erabiltzen dituzten sortzaileen lana babesteko deialdia da .

Medialab Tabakalera

Kultura digitalari lotutako herritarren sorkuntza gunea den heinean, Medialab Tabakalerak egonaldiak bultzatzen eta deialdiak egiten ditu sortzaileen, artisten eta diseinatzaileen lana sustatzeko. Lan horiek praktika artistikoarekin, teknologiarekin, zientziarekin, eta gizartearekin dute zerikusia. Programa sorta hau bizitegi eta egonaldi programek osatzen dute eta aukera ematen dute publikoari zabalik dagoen inguru batean lan egiteko, Medialab Tabakalerako erabiltzaile eta komunitateekin lankidetzan. Egonaldi eta proiektu hauen helburua da sortzaileen ikerkuntza prozesuak babestea, bere lana eta garatzen dituzten gaiak zabaldua eta haien inguruan jakintza berria sortzen lagunduta.

Ikus-entzunezko laborategia

Tabakalerako Ikus-entzunezko laborategiaren helburua ikus-entzunezko sorkuntza sustatzea da, arreta berezia jarriz talentu berriaren bilaketan, euskarazko sorkuntzan, berrikuntza edo esperimendazio formal eta teknologikoan, eta diziplinen arteko gurutzaketetan.

Horretarako, laborategiak ikus-entzunezko proiektuak garatzeko hainbat deialdi bultzatzen ditu. Horien artean, IMMATERIAL deialdia, Medialabekin lankidetzan, errealitate digitalen inguruan hausnartzen duten proiektuak garatzeko. Laborategiak formakuntza lantegiek, networking saioek, proiektuen aurkezpenek eta sektoreko profesionalen topaketek osatutako programa ere badu. Horregatik, ikus-entzunezko laborategia sortzaileentzat zein ikus-entzunezko sektoreko komunitate eta eragileentzat sarrera atea da. Talentu berrirako eta ikus-entzunezko sektorerako topagune estrategikoa, ikus-entzunezko komunitatea sortzeko espazio erreferentziala.

2. HELBURUA

Deialdi honen helburua da arte-pieza digitalak sortzea, eta edukiak eta **formatu berriak** erabiltzen dituzten sortzaileen lana babestea. Hainbat esparrutan egiten dute lan, besteak beste, **3D sorkuntza, digital art, virtual art, eta errealitate birtuala eta areagotua**. Helburu artistikoa duten beste formatu hibridoentzat ere



badute tokia (murgiltze-esperientziak, *appak*, bideo-joko kritiko edo artistikoak, interaktiboak...).

Era berean, **egungo errealitate digitaletik, Internetekin lotutako narratibetatik, inteligentzia artifizialeetatik, identitate hibridoetatik eta abatarretatik eta mundu birtualeko presentziatik** eratorritako gaien tratamenduari ere erreparatzen dio deialdiak.

**2025 Zientzia eta Teknologia Kuantikoaren Nazioarteko urtea izango da. Hori dela eta, teknologia kuantikoa kontuan hartua izango da aurtengo Immaterial deialdian, zeharkako gai gisa.*

Proiektuen egonaldia urrunean egingo da eta lau eta zortzi aste bitartekoa izango da, proposamen artistikoa eratzeko testuingurua eta denbora emango da, tutoreen laguntza eta 2.000 €-ko diru-laguntza eskainiko zaio artistari. Hiru proposamen hautatuko dira eta 2025ko IMMATERIAL jaialdian erakutsiko dira, Tabakalera.

3. HAUTAGAITZA

Edukiak sortzen dituzten sortzaile, artista edo kolektiboentzako da deialdi hau. Hainbat esparrutan egiten dute lan, besteak beste, 3D sorkuntzan, digital arte, virtual art, eta errealitate birtualean eta areagotuan. Helburu artistikoa duten beste formatu hibridoentzat ere badute tokia (murgiltze-esperientziak, *appak*, bideo-joko kritikoak, inteligentzia artifiziala...).

Dirulaguntza hauek emango dira proiektu artistiko berriak sortzeko zein dagoeneko martxan dauden ekoizpen prozesuak garatzeko, edozein formatutan, diziplina edozein dela eta edozein fasetan dagoela ere.

Ere berean, deialdira elkarrekin aurkeztu ahal izango dira hainbat pertsona fisiko edo juridiko. Ez zaie eskatuko beraien arteko harremana formalizatzerik eta kasu horretan 5. klausulako azkenengo paragrafoan ezarritakoa aplikatu ahal izango da.

4. BATZORDEA ETA HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Onartutako proiektuek praktika artistiko digitalak garatzeko forma berrien bila aritzeko asmoa erakutsi beharko dute.



Tabakalerak batzorde mistoa eratuko du proiektuak ebalua ditzan irizpide hauen arabera:

- Berrikuntza eta originaltasuna. Proposamenak argitaratu gabeak izatea baloratuko da, nahiz eta aurretik editatu edo aurkeztutako proiektuak ere kontuan hartuko diren, garapen proposamena koherentea bada.
- Kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia.
- Bideragarritasuna eta eskaintzen dituen bitartekoekiko egokitzapen maila.
- Publikoarekin elkarrizketak eta elkarreragina sortzeko gaitasuna.

Proposamenetako batek gutxienez, tokiko testuinguruarekin lotuta egon beharko du, inguru horretan eragina sortu, edo euskaraz izan.

Tabakalerako Kultura Zuzendaritzak (edo honek eskuordetzen duen pertsona), Medialabeko koordinatzaileak, Ikus-entzunezko laborategiko koordinatzaileak eta sektoreari lotutako eragile batek osatuko dute proiektuak baloratzeko ardura izango duen batzordea.

5. PROIEKTUA GARATZEKO EKARPENA

1. 2000 euroko ekarpena (zerga eta atxikipenik gabe) ekoizpen kontzeptuan. Faktura bidez emango da memoria aurkeztu ondoren.
2. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lantaldearen laguntza teknikoa, beharrendaren eta aukeraren arabera.
3. Tabakalerako lantaldea ondoan izango du garatu behar den proiektuak eta testuinguruarekin harremantzen lagunduko dio.
4. Aukerazkoa izango da (epaimahaiaren erabaki eta proiektuaren izaeraren arabera) astebeteko egonaldi fisikoa eskaintzea. Bertan - topaketa-lan saioak egin ahal izango dira Tabakalera, bai IE laborategian eta Medialaben, proiekturako proposak izan daitezken tutore edo profesional desberdinekin. Deialdiak Medialabeko Tabakalerako baliabideak erabiltzeko eta bere lantaldearen aholkularitza/ezagutza jasotzeko aukera emango du.



Oharra: Hautatutako proiektu bat kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, 3. klausularen bigarren paragrafoan aipatzen den bezala, ez zaie eskatuko harreman hori formalizatzeko), aipatutako prestazioak esleituko zaizkie bai kolektibo horrek izendatzen dituen pertsona fisikoari, bai kolektiboko kide bati, batzuei edo guztiei, kolektiboak hala eskatuta eta Tabakalerak horretarako alde aurretik ahalmeneko erabakia hartuta. Horretarako deialdia osatzen duten prestazioen zenbatekoa kuantifikatuko du (ahal den neurrian) eta prestazio horietako batzuk emango dizkie. Prestazioak gutzirako balioaren balioak izango dira. Oinarrietan ezarritako kopurua ez da inola ere biderkatuko proposamenak igortzen duen pertsona-kopuruarekin.

6. PROIEKTUAREN IRAUPENA

Proiektuaren garapena 4 eta 8 aste bitartekoa izango da eta 2024ko iraila eta Abendua artean burutuko da. Hautatuek eta Medialab Tabakalerak adostuko dute epe horren barruan noiz egingo den. Proiektuaren egonaldiaren iraupena batzordearekin adostuko da, eta aldeek dituzten prestasunari eta konpromisoei lotuta egongo da.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Esleipena lortu duen eskaera batek atzera egin behar badu, hautagaiak aurretik jakinarazi beharko du denbora nahikoz.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe alde egiten badu, emandako laguntzak baliogabetzea ekar dezake.
- Amaieran egonaldi honetan egindako proiektuaren garapenaren memoria aurkeztu beharko du.
- Proiektuaren garapena edo haren inguruan sor daitezkeen jarduerak Tabakaleraren programazioan txertatuko dira, hurrengo urteko Immaterial jaialdian besteak beste.
- Tabakaleraren izenak sortu diren piezen kredituetan edo emaitzetan azaldu beharko du, hitzarmenean zehazten den bezala.
- Creative Commons edo antzeko lizentzia aske eta irekiak erabiltzea baloratu eta sustatuko da.

Hautatutako proiektuen emaitzak:



- Emaitzak dagokien bukaerako formatuetan aurkeztu beharko dira.
- Prozesuaren itzulera formako jarduera publikoa. Arreta berezia jarriko zaie egonaldiarekin lotutako eta haren garapena osatuko duten formatu espezifikoak proposatzeari, tailer formatuan edo online dinamika esperimentalean.
- Irauteko helburua duen Medialab Tabakaleraren bilduma ireki bateko zati izango dira hautatutako piezak eta zentroko pantailetan eta erakundeak egokitzen dituen beste batzuetan erakutsi ahal izango dira, bai eta beste euskarri fisiko eta digitaletan ere. *

*Pieza hauek bilduman sartzeak ez du esan nahi jabetza Tabakalerarena denik. Zabalkunderako lizentzia irekiak erabiltzea sustatuko da (Creative Commons eta antzekoak)

Epeak:

- Deialdia **maiatzaren 17an, 12:00etan (UTC +2)** irekiko da.
- Aurkezteko epea: proposamenak **uztailaren 5eko 12:00ak arte (UTC +2)** igorri ahal dira.
- Ebazpena argitaratzea: **uztailaren 19an**.
- Proiektuak adostutako epean garatuko dira, **irailaren 16tik aurrera**.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Izen-emate orria betetzea.
- Proiektuaren aurkezpen/erakusketa formatu digitalean, dokumentuan edo PDF formatuan entregatzea (gehienez ere 25 MB), honako informazio hau jasota:

1. Harremanetarako datuak: izena, abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, harremanetarako telefonoa, jaiotze-data. Hautatutako proiekturako solaskide bakarria izendatuko da.
2. CVa eta biografia laburra. Kolektiboa baldin bada, kolektiboarena zein kide bakoitzarena.
3. Proiektuari buruzko azalpena eta zergatik gauzatu nahi den. Zenbat iraungo duen gutxi gorabehera, eta hautagaitzaren prestasuna.
4. Prozesuan jarraituko den gutxi gorabeherako lan egutegia.
5. Sare sozialetako plangintza xehatuaren eta komunikazio-estrategiaren proposamena. Material grafikoa edo proiektua argitzen lagunduko duten beste material batzuk.
6. Aurreko proiektu edo lanen erreferentziak: estekak, web orriak, etab.

TABAKALERA



Info+:

medialab@tabakalera.eus

(+34) 943475050

www.tabakalera.eus

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eus
—